

DBH: AUKERAKO GAIEN INFORMAZIO XEHEA

KOMUNIKAZIO TAILERRA

(Teknologia eta digitalizazio hastapenak)
(Pentsamendu kritikoa eta autonomia)

- Komunikazioaren garrantziaz jabetu.
- Komunikatzeko bide desberdinak ezagutu.
- Euskal Herriko komunikabide nagusiak ezagutu eta bisitatu.
- Komunikazio prozesuak sortu: aldizkariak, irratsaioak, Tiktok, Youtube, emotikonoak...

IKASTE TEKNIKAK OINARRIZKO MATEMATIKA

IKASTE TEKNIKAK

- Ikaslearen autonomia garatzen lagundu.
- Ikasketak eguneratuta eraman.
- Eskemak, laburpenak... egiten ikasi.
- Ikasteko hainbat teknika landu.

OINARRIZKO MATEMATIKA

- Matematikako errefortzuan gisara planteatua
- Aurreko urteko irakasgaia “pendiente” dutenei edo trabatuta izan zutenei laguntza emateko pentsatua.
- Irakasgaia zatika lantzen eta ebaluatzen da.

DBH: AUKERAKO GAIEN INFORMAZIO XEHEA

SORMEN TAILERRA ADIERAZPEN ARTISTIKOA

SORMEN TAILERRA

- Etxean botatzen ditugun materialei bigarren bizitza eman.
- Sormena, talde-lana eta norberaren trebezia sustatu.
- Hainbat proiektu sortu: karpetak, arkatzak sartzeko ontziak, orri markatzaileak, orratzak jartzeko txapelak, estutxeak, karterak, ohar koadernoak, jostailuak

ADIERAZPEN ARTISTIKOA

- Musika ardatz hartuta, beste zeinbait arte ere lantzea da asmoa.
- Musika eta arte eskoletara bisitak.
- Emanaldi bat nola prestatzen den aztertu.
- Ikasturte amaieran emanaldi bat egitea da erronka.

DBH: AUKERAKO GAIEN INFORMAZIO XEHEA

KULTURA ZIENTIFIKOA

Zientzia txokoa, IKT eta Mekatronika

ZIENTZIA TXOKOA

- Erabakiak hartzen ikasi, iritzia eman, gure ingurua ikertu, laborategian esperimintatu, ikerketa dokumentalak egin, inguruan ematen diren prozesuak maketatu, EHko zientzia sarea eta baliabideak aztertu...

IKT

- Egunerokoan lantzen ditugun aplikazioez gain, beste batzuk ezagutu, webgunea sortu, argazki-audio-bideo edizioak landu, gailu ezberdinak landu, sistema operatibo desberdinak landu, segurtasuna sarean nola landu aztertu...

MEKATRONIKA

- Robotika eta programazioa, diseinua, aplikazioen sorkuntza... talde-lanean eta sormena baliatuz proiektu originalak diseinatu eta errealitate bilakatu, 3D inprimagailua erabiliz. Sorturiko proiektu teknologikoak lehiaketa batera aurkeztu.

DBH: AUKERAKO GAIEN INFORMAZIO XEHEA

FRANTSESA

- Etxean A1 titulazioa lortzeko formazioa eskaintzen du.
- Ahozko eta idatzizko oinarrizko jakintza eskuratu.
- Frantziako kulturaren hainbat ezaugarri barneratu.
- Mundura irekitako ikasleak sortzeko beste ate bat da (Munduan gehien hitz egiten den 5.hizkuntza da, lanerako edo bidaiatzeko baliabide paregabea)
- Irteeraren bat egiten da ikasleak goxatzeko.
- Batxilergoan ikasgaiarekin jarraitzeko aukera dute.

DBH: AUKERAKO GAIEN INFORMAZIO XEHEA

JOLASA ETA KIROLA / OKE (Osasun fisikoa eta emozionala)

Bi helburu: kirol zaletasuna sustatzea eta osasun orekaren zaintzaileak izatea. Saiori teorikoak eta praktikoak daude.

JOLASA ETA KIROLA

- Bi ardatz nagusi dauzka: jolas kooperatiboak eta kirol alternatiboak ezagutzea.

OKE

- Lehen sorospeneko titulua eskuratuko dute.
- Defentsa pertsonaleko modulua egingo dute.
- Inguruko kirol taldeak ezagutu eta ekintzak egingo dituzte